

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure enpresa bereziki emakumeei zuzenduta dago, beraz, emakumeak erakarri nahi ditugu gure autoen proiektura. Gure bezeroekiko ontasuna behatzeko inprimaki bat egin genuen haien lehentasunak edota euren beharrak gogoan izateko. Honekin ikusi genuen hainbat emakumek beldurra sentitzen dutela gauean etxerako bueltan, horretarako gure zerbitzua eskaintzen diegu berriro beldurrik ez sentitzeko asmoz.

Haiengana heltzeko zenbait metodoren bidez egingo dugu; hala nola,

- **sare sozialen bidez**
- **telefono bat sortuko dugu**
- **web orrialdea**
- **mugikorreko aplikazioa**

Gure web orrialdean , KOMUNITATE bat sortuko dugu haien artean komunikatu ahal izateko eta horrekin guri lagunduko digute haien esperientzia konpartitzen . Baita ere, gure zerbitzua hobetu ahal izango dugu.



Sare sozialak erabiliko ditugu batez ere , gazteekin hobeto konektatzeko, normalean gehien erabiltzen dituztenak direlako .Haien bitartez jende gehiagora helduko gara eta gure enpresa indartu egingo da. Gure potentzia gehien izango duen sare soziala TikTok izango da, adin guztietako pertsonak erabiltzen dutelako. Gainera, TikTok-en, gure mezua, laburra, dibertigarria eta batez ere, zehatza izango da. Honekin, bezeroekin harremana sendotzea lortuko dugu.

